

Egilea:

LAURA URUBURU

Emakume Abertzale Batza 1922ko apirilean sorturiko erakundea da, Eusko Alderdi Jeltzalearen barruan erneriko emakumezkoen elkarte.

Elkarte honek aldi bitan garatu zuen bere lana: 1922tik 1923ko irailera, Primo de Rivera-ren diktadurara arte eta diktadura desagertu zenetik, 1931tik aurrera, 1936ko gerratera arte.

Aldi bi hauek izan ziren EABren unerik garrantzitsu eta emankorrenak; lehenengo aldikada laburra baina gartsua, elkarte sortu eta sendotuko dena. Eta bigarrena, indartsuagoa eta

luzeagoa. Lehenengoak baino eten gordinagoa izan zuen honek; gerratearekin bertan behera geratu baitzen beronen egitura eta ekintza guztia.

Halere ezin da aipatu gabe utzi, 1936 urtez geroztik ere, erbestean, Frantzia, Belgika eta Katalunian lehenengo, eta Txile, Argentina, Uruguay eta Hego Amerikako beste lurraldeetan gero, lanean jarraitu zuela, nahiz baldintza kaskarragoetan eta egitura ahularekin.

1933 urtean BBBren baimenaz eta laguntzaz ospatu zen Bilbon euskal emakumeari omenaldia "Homenaje a la mujer Vasca" EABko 60 elkarte bildu ziren bakoitza bere ikurriñarekin. Hitz egin zutenak emakumeak izan ziren, ama ziren euskal emakumeei omenaldia egitea zen helburua: amatasuna goratzea eta emakumeoi seme abertzale gartsuen heziketan zuten eginbeharra gogoraraztea.



Emakume abertzaleek EABren bitartez zuten asmoa, gizonezko abertzaleek berariaz politika-arloan egiten zuten lana osotzea zen.

Elkartearen eragilea Elias Gallastegi izan zen, Bilboko Euzko Gaztedi Batzako lehendakari abertzalea.

Lan egiteko era Irlandako eredutik jaso zuten. O'Daly zeritzan irlandar abertzale propagandista hizlari bezala ekarri zuten Bilbora 1922ko apirilean, eta hitzaldi garrantzitsu bat eman zuten Juventud Vasca-ren egoitzan.

Hizlariak, emakume irlandarren eginkizuna azaldu zuen bere hitzaldian, batez ere etxe barruan eta erlijioaren alde egiten zuten lana azpimarratuz. Baina baita, ekintzaile bezala, herriaren askatasunaren alde egiten zutena ere goratuz.

Hitzaldi horren ostean, entzule zeuden emakume abertzaleengan eragin zuen gar eta suaren epelean, sortu zuten emakumeek Emakume Abertzale Batza elkarte, honek izango zituen egitamu eta norabide batzuk ere aipatzen zirela.

1932ko Aberri Eguna. EABko emakumeak Bilboko kaleetatik desfilean.



HELBURUAK ETA EKINTZAK

1922-1923 aldikadan abertzaletasunaren gogo eta ideien zabalkundea eta abertzaletasunaren alde eratzten ziren lan-ekintzen antolaketa zen helburu nagusia. Ekintzen artean, hona hemen batzuk: ongile-lana (ongintza), euskarazko eskolak ematea, makinaz idazten ikasteko eskolak, ume eta emakumeen heziketa eta kultura, abertzaleen ospakizun eta agerraldietan parte hartzea, mendigoizaleei mendirako irteeretan laguntzea, etxeetako balkoietan ikurrina ipintzeko kanpainak, gizarte-

Robustiana Mujika, Tene.



-arazoetan laguntza ematea... Hitzaldiak eratzten ere lan handia egin zuten; antolatu ez ezik, eman ere egiten baitzituzten.

Bilbon jorratu zuen EABk bere lana, nahiz eta Bizkaia osora hedatzen zuen bere eragina.

1931tik aurrera aurreko helburu berari ekingo zaio, hain zuzen, "Jangoikoa eta Lege Zarra" dotrinaren zabalkundeari.



Gabon, Tolosan 1935ean argitaratutako lana. Haurrentzat idatziriko antzerki-obra da.

Gizarte mailako lanari ere arreta handia jartzen zitzaion, gizarte eta kulturaren arloko eta giza laguntzarako ekintzetan gogotik parte hartzen zutela. Zehaztu ditzagun ekintzok:

Kulturaren esparruan:

– Hitzaldiak, jaiak, mitinak... antolatu eta eurretan parte hartzea.

– Ikastolak sortzea; eskolak ematea, gai nagusiak hauek zirela: kristau-dotrina, euskara, euskal geografia, historia eta euskal kantuak. Makinaz idazteko eskolak. Musika irakastea.

Antolaketan:

– Neskame, eskoletako andereño eta emakumeen sindikatoen antolaketa bultzatu.

Ongintzan:

– Behartsuei, eritetxe eta etxeetako gaisoei eta giltzaperatuei laguntza ematea.

Hainbat lekutan garatu zuen bere lana, baina batez ere Katalunian egindakoa da aintzat hartzekoa; Alderdi Jeltzalearen ideien zabalkundea, kultura-lana, giza arazoetako laguntza eta ohiko ekintzez gainera, euskal emakume errefuxiatuentzako etxea sortu zuten han. Eta euskarazko ikastaro bat antolatu ere bai.

«Politika» emakumientzat ez dala; onetan oso-osoa zeurekin nago; nik ere ez dei ondo arkitzen «politika» era eriketa emakumientzat; batetik, izanik «politika» ustearen ondorea, eta ustea (gai onetan beintzat)jeri-zaintzako jakintzaren ondorea, arazo au emakumioi ez dagokigu, gizasemeai bezin ondo; abek bezin adimen argidunak, edo beintzat agitz ain ikasiak ez geraldako; eta bestetik, senditiki kanporako ardura abek, emakumea, bere gizako bearkun ingurutik aldentzen dutelako; eta au, sendiyarentzat kaltegarri izanik, gizartearen galbide litzakelako»

«Baña abertzaletasunak, Miren Itziar, ez du «politika» kin zer ikusirik. Au uste baten ondorea dan bezela; abertzaletasuna biozkada baten ondorea da, maitasun bat da; eta alde ontatik, jya-iy a usartuko nintzake esatera giza-semeai baño ebeto dagokigula abertzaletasuna emakumiai; adimen argiya ayen ogasuna ba-da, maitasuna gurea dalako, emakumiens dalako»

Miren Itziari idazkiak eta olerkiak lanetik ateratako pasarteak (9-10 orr.).

EABk garatu zituen askotariko ekintzen artean, garrantzi apartekoa merezi dute kulturaren alorrean egin zituztenak. Aipagarriak dira hor: hitzaldi, mitin eta batzarren antolaketa, eta eurretan parte hartze errimea.

Eta ahoz egiten zuten lanaren ondoan, saihestu ezinezkoa da idatziz eiho zuten emaitza.

Hala ere, idatzizko lanen esparruan emandako lehen urratsak, mende hasieran orduko egunkari-aldizkarietan eginiko idatzietan bilatu behar dira. Zein dira agerkariok? *Bizkaitarra*, *Gipuzkoarra*, *Napartarra*, *Aberri* eta *Euzkadi* egunkaria.

1910 aurretik idazlan gutxi batzuk baino agertzen ez diren arren, partaide hauek aipatu behar dira, besteak beste: Maria Barbier, *Mirentxu*; Purificación Gorostiza, *Garbiñe*; Rakel de Alda, *Katalin* eta Sorne Unzueta, *Sorne* edo *Utarsus*.

Purificación Gorostiza, 25 urteko emakume gaztea Barakaldoko El Regaton bizi zen. Lehen hezkuntzako irakasle baten alaba. Neba legegizona zuen, eta bera ere eskola-irakaslea, maistra.

Maria Barbier arabarra zen. Lehenengo *Gipuzkoarra* eta geroago *Aberri* aldizkarietan idatzi zuen, P. Gorostizaren ideien ildotik. Argi aitortzen zuen, ez zuela emakume idazle izan nahi, eta idazten bazuen,

«Ene Itziartxo: Aldi onan aipatu diezkituz zenbait euzko-oiitura zar, zeñak trauteko, edo bizitxeko emakumion eragiña bearreko duten; onela agerri nairik, beraben alde eginaz, berabek zaituzaz, geuk ere Lege-Zar alde zerbait dezakegula...
... Uta ditut baña haita batzuk aipatu gabe, gaurko aurrerapenakin, oiitura oyek alperrikako ditugulako...
... Gaurko bizkera berri eta aurreratuak, beste oiitura berri batzuk eskatzen dizkigu, egibera berri bat eskatzen digulako; eta abetan okertu ez gaiteran, ardura berezi bat bearreko zaigu, Jainkoaren eta Aberriaren maitasunean gure egitenen zuzenbidea bila»

Robustiana Mujika, *Tene-k* idatzitako pasartea "Emakumea eta aberria" artikuluan, *Euzkadi* 1921

6

abertzale-gogoia emakumeetan zabaltzearen egiten zuela. Idaztea bitarteko bat zen emakumearen aberriarekiko eginkizuna hedatzeko. Bere ustez, emakumeak abertzaletasunaren hedakuntzan zuzenki parte hartu behar zuen, baina ohiko etxe- edo familia-girotik.

Rakel de Aldak 20 urte zituen eta Bilboko erdi-goi mailako familia bateko alaba zen. Bere aita, EAJko Diputazio-buru zen, geroago sortuko zen Euzkadi Buru Batzarraren aurretiko alderdi-batzordeko nagusia. Emakume hau, aurrekoa baino aurrerago joan zen. Honek esaten zuenaren arabera, emakumeak etxetik kanpora irten behar zuen eta gizonekin lankide izan behar zuen aberrigintzan.

1910 urtea ezker, lehenagoko emakume idazle-taldea desagertu egingo da. Mirentxu eta Garbiñe 1908 eta 1909an hil ziren. Eta gainerakoak, Kataliñ eta enparaduak, lanak bialtzeari utzi egin zioten.

1910 urtearen azkenerantz, *Bizkaitarra* agerkarian berriro hasiko da sail bat, "Colaboración femenina" izeneko. Baina bertan dozena erdi bat idazle besterik ez zaizkigu agertuko. Ezizenez sinatzen dute beti eta hórregatik idazleok nortzuk diren jakiten ez da batere erraza. Hona euron izenpeak: "N. L. de A.", "Miren Ikerne", "Gotzone Miren", "Miren Josune", "Andra Garatz", "Maite", "Igone".

Idazlanotako edukia, Alderdi Jeltzalearen idearioaren zabalkundea zen, eta batez ere, emakumeen betebeharra gizonezkoen abertzale-lanaren osagarri bezala ulertzeko norabidea.

«... gure aldeik ba beste zerbait ere bai lekegu abenda garbitasunatzaz: eskontzean, gure abendakoa ez danakin ez eskontzea. Egitya esan, ez naiz azartzen esatera, euzkotara izan ezik horekin ez eskontzeko; ori ez. Aberri-ganako bearkunaren gain degu gogoa ez gaitzeko; eta biziñde bat artu edo ezetik galdu leke au. Orenyatik ez dizut esango, zeuk eskonda nai, senargai euzkotar onik euki ez, eta orola dan atzeritar bat bai, zure abendari kalerik ez egitearen zure sopusari egiteko; baiñi au ez da beti gertatzen, eta al-ba 'dezu beintzat, atzeritar eta euzkotaren artian euzkotara aukeratu, ori bai. Eta au onela izan dedin, zeuri dagokizun anian alegindu ere bai»

Tene Mujika. Euskal arrazaz edo endaz ari da.

TENE MUJIKA

Baina idazlanotarik gehien-gehienak gaztelaniaz idatzirik daude, eta 1916 urtetik aurrera *Euzko Deya* hamabosteroko euskarazko aldizkarian maiztasunez idazten hasiko den lehenengo euskal idazlea Robustiana Mujika, *Tene* izango da. Gipuzkoar idazle oparoa. Hainbat olerki eta kontakizun argitaratu zituen, guztiak euskaraz.

Euzkadi egunkariko “Emakumea eta aberria” atalean ere hainbat aldiz idatzi zuen. Gutun edo eskutitz jeneroko idazkiak ziren, Miren Itziar izeneko pertsonaia asmatu bati zuzenduak. Gutun hauen bidez emakume abertzalearen arketipoa eskaintzen du, ereduak ematen ditu; emakumeak etxean eta gizartean nolako jarrera eta jokaera izan behar duen. Azken batean, helburu didaktikoa du Tenek, neskatila abertzaleen heziketa baitu gogoan.

Deban jaio zen 1888an eta bertan hil 93 urte zituela. 1923an Debako EABko diruzain izan zen, eta 1935etik aurrera Gipuzkoako EAB federazioko lehendakaria.

Agerkarietan hainbat idazlan egiteaz aparte, olerkiak, narrazioak eta antzerki batzuk ere idatzi zituen. 1975ean Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen.

«Bizi sartu da erdalkeria emakumen artean; euzkeldun errian, emakumea da euzkera sustraitik jaten duan zerena; emakumea euzkerari euzkerriari galbiderontz geyen bultzatzen dion indarra; eta gure ele au guizkatu nai ba' da, emakumea da lehen bere alder ipitiñ bear dan gaikia»

«...zenbait gauzatarako gizasemeena baño almen geyagoduna; sustrayagotik ukitzen diegulako edo ta beren ofafia dagigulako; ofengatik gera gu gauz oyen zoria erabaki dezakegunak. Abetako batzuk dira eleak, edo izkuntzak gizartean; eta gure abeñien elea euzkerea. Biziko ba' da, ele ifa izango ezpa' da, beste guzien gain emakumien egipena da lenen lenen bear duana eta esango dizut zergatik. Lenbizi elearen osasuna aztedian dago; iraungo ba' du, gizaldi guztietan erabiliko duten gazteak bear ditu; eta gaztedi euzkeldun ori umeak dagie; amak aziko dituen umeak»

Tene Mujika. Euskal hizkuntza du jardungai.

Bere lanetan isladatzen den pentsamoldea hau da: emakumeek abertzaletasun eta ohitura zaharren alde jokatu behar zutela politika-alorretik kanpora, ohiko zereginak utzi gabe eta gizonezkoen lekua hartzeko asmo barik.

Bere idazlanetan nahiz hitzaldietan jorratzen zituen ideia eta asmoak aurreragotik ere aipatuak eta landuak izan arren, Tenek zehatz eta sakon azaltzen jakin zuen. Lan oparoa egin zuen Alderdi Jeltzalearen ideologiaren zabalkunderako.

Beraren idazki ezagunenak hauek dira:

– *Miren Itziarri idazkiak eta olerkiak* Zornotzako Jaungoiko-Zaleren irarkolan argitaratu zen eta Euskaltzale Bazkunak saritutako lana da. Lehen esan bezala, emakumeei zuzenduriko gutunak dira, baina olerkiak ere bai; eta guztiak, barru-barrutiko abertzale-sentiera batez eihoak. Olerkiak, arrantzaleei, amamei, maitaleei zuzenduak dira, baina beti ere aberria eta abertzaletasuna sakon-sakonetik goratuz.

– *Gogo oñazeak* Tolosan argitaratu zen 1934 urtean *Antzerti* aldizkariko 34, 35 eta 36 zenbakietan. Aldizkari horrek antolaturiko bigarren antzerki-lehiaketan lehen saria irabazi zuen.

– *Gabon* haurrentzat idatziriko antzerki-obra (Tolosa, 1935), *Antzerti* aldizkariaren 46 zenbakian agertu zen.

– *Juan Jose* 1936 urtean Asambleia Mariana Diocesana-k eraturiko lehiaketara aurkeztu zuen eta baita saria irabazi ere. Baina handik lasterrera guda hasi zen eta ondorioz galdu egin zen lan hau.

– *Cuadernos de Vasceuce hablado* (Zarautz, 1968) ipuinak eta narrazio laburrak dira.

KARMEN ERRAZTI

Tene Mujika 1916an bere olerkiak argitaratzen hasi eta hil batzuetara ekingo dio idazteari beste emakume batek. *Euzko Deya* euskal hamabosteroko aldizkarian azalduko ditu bere idazkiak Karmen Errazti, *Etxakin* emakumeak. Geroago EABko lehendakari izatera helduko da.

“Euskeldun neskatillai” idazten zizkien artikuluak. Bilbotarra zen eta 26 urte zituela ikasi zuen euskara Kirikiño maisu zuela.

Noizean behin baino ez zuen idazten. Ez zion Tenek egin zuen trinkotasunez langintza horri ekin. Baina ia beti euskaraz idazten zuen. Iritzi-artikuluak batez ere, baina baita ipuinak eta antzerkiren bat ere. Inoiz, ahoz emaniko hitzaldiak ere *Aberri* aldizkarian transkribaturik eman zituen.

Idazkion gaia, Sabino Aranaren ideologia aditzera eman eta emakumeen artean zabaltzea zen.

... «bestiak atsegindutiafen bere buruba makuitzeko geru egon biar-da beti. ¿Buru-makurtze onek eztauko bere sarija? Bai, ta andija: gustijoen mañagari ixatia» .

«Bixitza, atsegiñez beterik dago. gura-dabeneztat. Zugatz ofitsubak, landara loratsubak, txoritxu abeslarijak, exaf distratsubak, naikuak dira pozaldia andija emoteko» .

Karmen Errazti, *Etxakin*. *Euzko Deya*, 1916 eta 1917 urteetako pasarteak. Euskaraz mintzatzen ziren emakumeei idazten zien Etxakinek, euren heziketarako norabideak emanez.

1922ko abenduaren 3an euskararen aldeko kongresu bat egin zen Bilbon, Juventud Vasca-ren egoitzan. Han, euskararen ardura EABri eman zitzaion. Batzar hartan euren eginkizun bezala hartu zuten euskararen erabilera eta zabalkundea. Eta helburu horren betegarrirako sortu ziren egitasmoen artean, hauek aipatu zituzten kongresuan zeuden andrazkoetariko batzuk: irakur-idazketaren irakaskuntza eta euskal abestiena.

Aurreko urteetan eta hamarkadan eginiko lanaren aldean, izugarrizko aurrerakada izango da, handik aurrerantzean emakume abertzaleek aldizkarietan egingo dutena.

Hala ere, ez ziren asko izan euskaraz idatzi zuten emakume abertzaleak. Gainera, idatziz agertzen diren testu asko, mitinetan berbaz esanikoen transkripzioak besterik ez dira.

Julia Fernandez Zabaleta eta Maria de Etxabe dira hitzaldiak euskaraz ematen zituztenetariko EABko kide bi.



Julia Fernández Zabaleta argazkiaren erdian.
Nafarroako EABkoa.

JULIA FERNANDEZ ZABALETA

Nafarroako EABren sortzaile eta eragileetarikoa izan zen, eta Iruñeko EAB taldeko lehen lehendakaria. 1930 inguruan sortu zen Nafarroako atala.

Baina lehenago eman zuen bere burua ezagutzera Euskal Eснаlea elkartearen eskutik. Elkarte honek urteoro euskarazko hitzaldiak antolatzen zituen, gero argitara ematen zirenak. Elkarte honetan hitzaldia eman zuen lehen emakumea berau izan zen, 1924ko abenduaren 14an. 26 urte besterik ez zituen eta lehen hezkuntzako andereñoa zen Iruñean. Hitzaldiaren gaia “Emakumien etorkizuna” izan zen. Bizi guztian

jardun zuen andereño-lanean, eta Francoren errejimena etorri arte, politika-arloan buru-belarri sarturik egon zen.

Emakumeei euren buruak jakitez eta lanbidez hornitzea gomendatzen zien: emakumeak etxetik kanpoko alokairu-lanean sartu behar zutela defendatzen zuen. Adimen-lana ere egin behar zutela uste zuen. Eta era berean, herri-karguetara ere iritsi behar zutela. Hala bada, politika-eremua zabalik zegoen haren aburuz emakumearentzat.

«Pantze ta Alemania'n, gizon geyenak gudara joan ziranean, emakumeak aritu zituzten ayan lanak; emakumeak egin ziran lantokietako zuizendari, ta emakumeak lurak landu zituzten. Europa'ko gizonak eriotzara efoitu zituzten artean, emakumeak, zalantza gabe, ostetasun gabe, beren soinganean bota zuten bidez ziranak. Ofa zef egin zuten emakume ayek, bere biziya irabazteko gai izofek zalanizatzen du emakumeak bizi azke bat lofdu dezakela?»

Julia Fernández Zabaletaren “Emakumien etorkizuna”, Itzaldiak liburutik hartutako pasartea. Liburu hau Donostian argitaratu zen 1926 urtean. Euskal Eснаlea elkarteak antolaturiko hitzaldi-saioetan 1924an eskainitakoa.

MARIA DE ETXABE

Zarauzko EAB taldeko lehendakaria izan zen. Euskal Esnaleak eratzen zituen hitzaldi-saioetan bigarren parte hartu zuen emakumea Maria de Etxabe da. 1930eko apirilaren 27an eman zuen hitzaldia gai honen inguruan: “Zorionaren iturria gizonak non du?”.

Zarautzen jaioa zen 1904an eta bertan hil zen 1993ko maiatzaren 5ean. Euskararen alde eman zituen hitzaldiez gainera, antzerki-lan bat ere badu: *Iziarko Ama*, hiru ekitaldikoa. 1929 urtean Gipuzkoako Aurrezki

Kutxa Probintzialak eratu zuen literatura-lehiaketan lehen saria jaritsi zuen antzerki-sailean.

1930ko uztailan Euskaltzaleak elkarteak ekitaldi garrantzitsu bat antolatu zuen Donostian “Homenaje de la mujer al euskera” izenaz. Eta antzerki-gau bat izan zen azkenean, ikusleetan euskararen aldeko jarrera sorrarazteko. Aipagarria da Maria de Etxabek eskaini zuen hitzaldia, “La mujer y el euskera” izenekoa.



Maria Etxabe. Zarauzko EABkoa.

BESTE BATZUK

EABko kideek ematen zituzten hitzaldietan lantzen zituzten gaiak emakumearen ingurukoak ziren: emakumeen papera, betekizuna eta lekua gizarte abertzalean.

Kulturaren esparruan nabarmendu eta nagusitu zen emakumeen lana. Politika-lana gizonezkoen esparrutzat hartzen zen orduko giroan eta abertzaleen pentsamoldean.


Kulturaren esparruan, euskal hizkuntza babestu eta garatzea hartu zuten zeregin nagusizat.

1923tik 1930era idazle emakumeek egunkari eta aldizkari abertzaleetan idazten segitu zuten: *Euzkerea*, *Euskal Esnalea*, *Euskalerraren Alde*, *Jaungoikozale*, *Euzkadi*, *Diario Vasco*, *Bizkaitarra*, *Argia* eta *El Obrero Vasco*. Idazle gehienak EABko kideak ziren.

Hauen artean aipagarriak: Karmen Errazti, *Etxakin* eta Sorne Unzueta, *Utarsus*, Bilboko EABkoak; Julia Fernandez Zabaleta, Iruñeko EABkoa; Maria Etxabe, Zarauzko EABkoa;

Elvira Zipitria, Donostiako EABkoa; Tene Mujika, Deba eta Gipuzkoako EABkoa eta Errose Bustintza, *Mañariko* idazle bezala aipu berezia merezi duena.

Hain ezagunak ez diren beste batzuk ere aipatu behar dira, nahiz eurotariko gehienek euskaraz barik gaztelaniaz idatzi zuten: Ivonne d'Arripe, Antonia May, "Edurne", "Mirentxu", "Alicia", Rosa Hierro, Francisca Astibia –*Astitxe* edo *Onintze*–, "Loentxo", Joakina Garaialde, "Ibone", Juanita Mir, Rufina Azkue, "Gorularija" eta "Miren Terese".



Euskal Herri osoan eman zituzten hitzaldiak EABko emakumeek garai haietan. Aurrerapausu handia izan zen emakumea plaza agirian azaldu zelako (*Mujeres y Nacionalismo Vasco*, M. Ugalde, EHU, Bilbo, 1993.)

1931TIK AURRERA

Primo de Rivera-ren diktaturaren ostean garai aproposa gertatu zen EABrentzat elkarte bezala berpiztu eta indarberriturik agertzeko. Eusko Alderdi Jeltzalea izan zuten eragile. Alderdi Jeltzaleak EABren laguntza nahi zuen, honek antzineko gizarte-modua berreskuratzen eta ohitura zaharrak zaintzen lagun ziezaion.

EABk gizarte-kultura arloetara eta ongile-lanetara abiatu behar zuen bere jarduna, baina inola ere politika-eremuan sartu barik. Ardura-banaketa honen ondorioz, euskararen aldeko lana interesgune nagusi bihurtu zen elkartearentzat. Abertzaleek emakumeen eskuetan uzten zutelako euskara galdu edo biziko lehia.

Euskararen aldeko ekintza mardulena, hizlari moduan bete zuten. Hainbat dira herririk herri hizlari ibili zirenak: Polixene Trabudua, Sorne Unzueta, Miren Nekane Legorburu, Gloria Zubia, Teresa Zabala, Haydeé

Agirre, Mercedes Kareaga, Miren Lazkano, Julene Urzelai, Katalina Alastuei, Julia Fernandez Zabaleta, Karmen Sanchez Gamarra. Euskaraz eta erdaraz ziren hitzaldiok, jakina.

Egunkari eta aldizkarien bidez ere lan zabala garatu zuten, Eusko Alderdiaren pentsamoldea indartu eta zabaltzeko. Euretariko batzuk erdaraz idazten zuten. Hala, Karmen Erraztiren lanak gaztelaniaz daude, baita Ivonne d'Arisperenak ere.

Euskaraz idazteko aukera, batez ere, *Euzkadi* eta *El Día* egunkarietan eta *Argia* eta *Euzko* aldizkarietan izan zuten. Era berean *Amayur* eta



Jagi-jagi aldizkarietan ere idatzi zuten. Horrezaz gainera, badira idazlan banakak *Bizkaitarra*, *Arabarra*, *Mendigoxale*, *El Obrero Vasco*, *Aberri Eguna*, *Jaiki* eta *Euskal Esnalea*-n ere.

Iritzi-artikuluak, abestiak, ipuinak, leiendak, hiztegitxoak, kronika-albisteak ziren, besteak beste, argitaratzen ziren idazlanak. Idazkion bidez euskararen irakaskuntza bultzatu nahi zen emakume eta umeen artean.

Idazten dutenetarik asko, 1930 aurretik agerkarietan idazten ibilitako berberak dira: Errose Bustintza, *Mañariko*, “Ete” (Markinakoa), M^a Begoña Beristain, *Lorea* (Eakoa), “Lilitxo” (Leitzakoa), Robustiana Mujika *Tene*, Karmen Errazti, *Etxakin*, Ivonne d’Arispe, Julene Azpeitia, *Arriotokieta*, Maria Juaristi, *Mirentxu* (Elgoibarko EABko lehendakaria 1933an), “Lorentxu” (Motrikukoa), “Iñazi” (Bergarakoa), Elvira Zipitria, *Ira*, “Edurne”, “Itxiartxo”, “Ekarnetxu” eta beste batzuk.

Aldi honetan Tene Mujikak gutxiago idatzi zuen aurrekoan baino, Debako

EAB taldeko burua zenez, beste ardura batzuk zituelako. Hogeiko hamarkadan idazkuntza oparoa garatu zuen emakumeak, bigarren aldian honetan idatzitakoak hamabira ez dira heltzen.

Karmen Erraztik ere erdaraz idatzi zuen egin zuen apurra, eta gauza bera esan daiteke Ivonne d’Arisperen gainean.

Beste emakume batzuk, ostera, oso emankorrak azaldu ziren euskaraz idazten. Horietako batzuk hurrengo doazenak dira.



Polixene Trabudua eta Haydeé Agirre hizlariak espetxeraturik.

JULENE AZPEITIA

Zumaian jaio zen 1888an. Andereño izan zen Bizkaiko auzo-eskoletan. Bizkaiko auzo-eskolen buru izendatu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak.

1931-33 bitartean 57 lan argitaratu zituen *Euzkadi* egunkarian, Lauaxetaren eskariari erantzunez. Dotrina-kutsuko lanak ziren. Euzko Alderdi Jeltzalearen ideiak zerabiltzan lanotan.

Idazlanetarik ehuneko hirurogeian umeen heziketa darabil gaitzat. Euskaraz daude eta egunkariko "Euzkotar Umien alde" atalean atera ziren.¹



Julene Azpeitia, Arritokieta.

JULE GABILONDO

Julene Azpeitiarekin batera, hau izan zen *Euzkadi* egunkarian gehien idatzi izan zuena, Lauaxetaren deiari erantzunez.

Mungiatik idazten zuen. Guztira 30 idazlan baino gehiago dira bereak, eta guztiak euskaraz.

Politika-gairik ia ikutu ere ez zuen egin. Sarrien darabiltzan gaiak: Sabino Aranak irakatsitako ideiak eta emakumeek abertzale mogimenduan gogotik parte hartu beharra. Emakumeari dagokio Jainkoa eta Aberriaganako maitasuna zabaltzea. Amak zirenak ama bezala, eta beste guztiek etxe-harremanen bidez edota hitzaldi eta aldizkarien bitartez.

¹Ikusi *Bidegileak 1* karpetan Julene Azpeitiari eskainitako liburuxka.

ERROSE BUSTINTZA


Errose Bustintza, *Mañariko* Mañarian (Bizkaia) jaio zen 1899 urtean. Kirikiñoren iloba zen, eta Kirikiño saria irabazi zuen 1932 urtean. Euzkeltzale Bazkunak sortu zuen sari hau, *Euzkadi* egunkarian idazten zutenen artean emateko.

Mañarikok asko eta ondo idatzi zuen, beraren osabaren eskola herriko eta biziari zerraiola. *Euzkadi* egunkarian eta *Jesusen Biotzaren Deya* aldizkarian idazten zuen.

Iritzi-artikuluak, olerkiak eta kantu-hitzak egin zituen besteak beste, Mañariko kronikak bialtzen zituen bere jaioterritik egunkarira, harik eta Francoren gudarostearen erasoak ezina sortu zuen arte. Alde horretatik, osabak hainbeste landu zuen kazetari-lana ez da nolana hikoia ilobarengan ere.



Mañarikoren ipuin-bilduma
J. Kerexetak argitara emana.

IPUINAK
ERROSE BUSTINTZA
"Mañariko"



Beste guztien gainetik ipuingintzan erakutsi zuen Mañarikok trebetasun apartekoa. Ipuin-sorta ederra osotzen dute gudu aurrean argitaratu zituen ipuinak. Honetan ere, nolabait, osabagandik zetorkion kontaktetarako sena. Irudimen handikoak dira beraren kontakizunak, ez bakarrik bere kabuz sortuak, baita herritik jasorikoak ere. Hizkera bizi-bizia eta aldi berean aberatsa zuen, osabak bezala. Irakurtzeko atsegina.

Bizi zela libururik osotu ez bazuen ere, Jaime Kerexetak argitara eman du orain dela urte batzuk Mañarikoren ipuinen bilduma eder bat, 49 ipuinez osotua, eta biltzaileak berak orraztu eta gaurkotua.



Euskal idazleak bizkaieraz
(K. Etxenagusia, Labayru Ikastegia)
liburuan argitaraturiko Errose
Bustintza, Mañariko-ren ipuina.

SORNE UNZUETA

Sorne Unzueta, *Utarsus* Bilboko EABren barruan zabalkundearen arduraduna zen.

1900ean jaio zen Bilbon. Abertzaletasunak eraginda ikasi zuen euskara gaztetxotan eta harrezkero euskal hizkuntza bere lan- eta gizarte-tresna bihurtzen gogotik ahalegindu zen. Andereño legez jardun zuen Bizkaiko hainbat auzo-eskolatan, harik eta gudak lanbide hori eten zion arte.

Gero, bere ume txikiak hartuta, Frantziara alde egin behar izan zuen. Hala bada, 1937an etorri zitzaion hamabost urte iraungo zuen

erbestealdia. Erbestean, lehenengo gaztelania irakasten eta gero frantses-hizkuntza eta kultura ematen atera zuen bizimodua.

Guda aurreko aldizkari eta egunkarietan ugariak dira Utarsusek sinaturiko idazlanak. Beste emakume askok legez, ez zuen idazten bere burua idazle ikusten zuelako, gizartearekin sentitzen zuen betebeharragatik baizik. Abertzalea zen eta EABko kide izateak eskatzen zion konpromezuak bultzatuta, beste zeregin batzuen artean, idatzi ere egin behar zuen. Euskara indartu eta gizarte-mailan abertzale-gogoia zabaltzearen egin zuen bere lana.

19



Sorne Unzueta, *Utarsus* Bilboko EABkoa.



Utarsusen euskal lanen bilduma Labayru Ikastegiak oraintsu argitaratua.

Hiru ataletan bana daiteke bere ekintza:

Hitzaldiak.

Sornek ere, beste euskal emakume idazle batzuen antzera, euskal emakumeen lana eta betebeharra aldarrikatu zituen. Gogoangarria da Bermeoko mitin baten euskara eginez izan zuen arrakasta: "Bermeotarrak!" lehen hitza esanez batera txalo-hotsa jaso zuen. Bizkaiko eta Gipuzkoako herri askotan parte hartu zuen mitinetan.

Olerkiak.

Geroago ere idatzi izan dituen arren beste batzuk, 1930-32 bitartean, euskal poesiak goraldia ezagutu zuen garaian idatzi zuen zatirik handiena. Poesietan ere gai nagusia euskal gizartea da: giza maitasuna, Aberriaganako eta Jainkoaganako

maitasuna. Baina badararabiltza beste motibo batzuk ere: amatasuna, natura, urtarokak. Olerkiok atseginez irakurtzen dira; estilo samurra eta gozoa duelako idazterakoan Sornek. Poesia deskriptiboak dira, adjektibo ugariz hornituak.

Ipuinak eta narrazioak.

Gudu aurrean idatziriko ipuinak lau dira. Alegien erara idatziak daude eta eurretan beraren iritziak agertzen ditu aberria, herria eta euskara gaien inguruan.

Oraintsuan plazaratu da Labayru lkastegiaren eskutik, Utarsusen *Idazlan Guztiak* liburua, Igone Etxebarriak atonduriko edizio baten bidez.



Sorne Unzuetak andereño legez jardun zuen Bizkaiko auzo-eskoletan gerra aurretik.

2. ITXARTU, EUSKO ALABEA!

Orria garbi ta orin
dakuazu, sortalden
argi gori bigintzua
zahalduren hasi da.
Itxartu, eusko alabea,
jagi, ba, emakumea!

Euskadi, geure aberria
da arrotzaren jopoa,
Oinarrean, juntean,
dank lo egon gara ta,
bere negar, zotir, oihu
mingotak, emzun baga.

Sabin, geure neba onak,
lehenegoa, emzun ehan
Euskadi urgazi eske
egiten euskun deatlarra;
deatlarra emzun eta zurik
bera alderen, jagi zan.

Sabin jarraitzen, edonon,
hasi dira eusko herrian,
aberraren kateak
azinduren eutsioak.
Ugartea jagoz eta
behin apurtuko dira.

Eta zu ondino lo zagoz,
ene ahiza kutuna!
Ez zaitu, ba, ondino itxartu
lanaren zaratetik!
Itxartu eusko alabea,
jagi, ba, emakumea!

IDAZLAN GUZTIAK

gurutzak daukana,
egun baten, mendi goian,
egongo da zibuka.

Zuk hazitako semeak,
zuk egindako ikurriñak
lortu-iragarriko dabe
Euskadi-askatasuna.
Itxartu, eusko alabea;
jagi, ba, emakumea!

SORNE URZUETA-UTARSUS

Umea, geizorik badu
osazko izten da
anaren maiztasuna,
bata emakumeen hitzotak,
geizitako aberria.

Geure goiko laun onari
egin onu, euskara,
beriko askatasuna,
geure Aita biziñ onak
entzango deusue-ta.

Zeure odolar hazitako
sene ekiti politak,
egiten duan hitarean,
aberi oleri aberkiotak
eusko aberi gozotak.

Semeren hitozean
ruko dan arazan
erein Euskadientzako
alderamun talia
batera jurgotikorean
maiztasun deungoz.

Umea gingo da gizona,
hazit landuz,
ta zango da, bai, gogorra
atzeraten eta dala
berotzen ikusi arren,
Euskadi alder eginda.

Zuk jositako ikurriña
nuri-guri-oregat,
Jusu ta Dusu Anderen

Idazlan guztiak, Sorne Urzueta, Utarsus.
Labayru Ikastegia-Bilbooko Udala.

ELISA ALZOLA

Euzkadi, Amayur eta Euzko-n agertzen ditu bere lanak “Ane Miren” ezizenez izenpeturik; *Euzko-n* idatziak euskaraz daude. Abadiñoko EABko kidea zen eta Lauaxeta olerkari ezagunak bultzatu zuen agerkari abertzaleetan idaztera.

1933-1936 ALDIA

Orduko politika-egoera zela eta, EABk, nahiz eta apurren bat hazi, ez zuen izan hala ere, aurreko urteetan bezalako gorakada aipagarririk.

Herriren batzuetan EABren atal berriak sortu ziren, baina 21 inguru guztira ere. Ekintza-eremuak eta lan-jokabideak aurreko aldiko bidetik jarraitu zuten.

Tenek eta Mirentxuk euskaraz idazteari ekin zioten, bai egunkari bai aldizkarietan, lehenagoko ideologia-ikuspegi berarekin.



Euzkadi egunkarian, euskal atalean, beste hainbat emakume idazle aurkitzen ditugu. Guztira EABko kideek eginiko 120 idazlan baino gehiago dira aldi honetakoak, gehien-gehienak euskaraz idatziak.


Idazleen artean: Julene Azpeitia, *Arritokieta*, Jule Gabilondo, *Maite*, Monica de Lekunberri, "Mirentxu", "Emakume bat", "Tene", "Emakume aldra", "Mañariko", "Ane Miren", Subiñas'tar Miren, "Josune", "Andereño batek", Karmen Gurtubai.

1934-36 bitartean, Julene Azpeitiak ehun bat idazlan egin zituen, eta Jule Gabilondok hogeit hamar inguru. Juleneren idatziak umeei zuzenduak eta umeen heziketaren gainerakoak ziren. Edukia literario-didaktikoa dute eta estilo-itxura kontuarena. *Euzkotar umien*

alde eta *Euzkotar umientzat* ziren idatziotan erabiltzen zituen izenburuak. 1934an Kirikiño saria irabazi zuen ipuin erara idatzi zuen artikulu bategatik: "Euli baten edestia".

Jule Gabilondo, *Maite*-k ere bere idazlanetan erlijioaz eta euskal hizkuntzaz jardun zuen.

Idazle bi hauen eta orohar beste batzuen lanetan, euskararen zabalkundea egiteko gogo nabari da, eta honekin batera, Eusko Alderdi Jeltzalearen ideien azalpena irakurleei jakitera emateko xedea.



Aipagarria da bestalde, *El Día* egunkarian garai honetan sortu zela “Emakume Ingoskia” euskarazko orrialdea. Gipuzkoako EABk zuen orri horren ardura. Helburu nagusia, euskararen aldekoa zen: euskara zabaldu eta indartzea. Orri horretan iritzi-artikuluak eta literatura-lanak atera ziren, batipat.

Honez gainera, *Argia*, *Ekin* eta *Euzko* astekarietan ere agertzen ziren emakume idazleen lanak. Tenek *Argia*-n, Maitek *Ekin* eta *Euzko*-n. Beste agerkari batzuetan ere atera ziren. Hala, esaterako: *Aberri*, *Amayur* eta *Jagi-jagi*.

Idazleek ezizenpean mozorroturik plazaratzen dira ia beti. Hori dela eta nekeza da euren benetako izen-deiturak jakiten. Hona batzuk: “Ete”, “Emakume bat”, “Lamiña bat”, “Edurnetxu”, “Ikerne”, “Neska zar bi”, “Mirentxu”, “Amaya”, “Arantza”, “Eguzkiñe”, “Teresetxu”, “Gare”, “Dule”, “Ni emen”, “Gogozale”, “Sorkunde”, “Matagune”, “Beti gazte”.



Hizkuntza Politikarako Sailordetzak liburuxka honen material

grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Labayruko Ikastegiaren Argaxki Artxiboa*
- *Jose Ignacio García Muñoz*
- *Auñamendi Editoriala*
- *Sancho el Sabio Fundazioa*
- *Antton Segura*

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	1.a, 1997ko abendua
Ale-kopurua:	2.000
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Wellington Dukearen kalea, 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Fotokonposaketa eta Inprimatzea:	Gestión Gráfica Gasteiz, S. L. Avd. de los Huetos, 46 - 01010 Vitoria-Gasteiz
ISBNa:	84-457-1217-9 (obra osoa)
ISBNa:	84-457-1219-5
Legezko Gordailua:	VI - 625 / 97